



AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2005eko uztailaren 26a.

LEKUA: Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

DEIALDIA: Lehena **HASIERA-ORDUA:** 19:10 **AMAIERA-ORDUA:** 19:15

BERTARATUAK:

Alkatea

Mirari Arruabarrena Elizalde

Zinegotziak

Eneko Olariaga Arruti, M. Jose San Sebastian
Aranburu, , Martxiel Genoba Solaberrieta, Andoni
Sarasua Oleden, Noemi Ostolaza Arkauz, Ramon
Etxeberria Aldaz Eugenio Cotado Iturain, M^a Elena
Legarra Alfaro, Aurora Azkue Mujika eta Jesus Jose
Rodriguez Pousa.

Idazkari-Kontuhartzailea

Jon Carrera Jauregi



Aztergai zerrenda

1. Onartzea, egoki bada, 2005eko ekainaren 28ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
2. Onartzea, egoki bada, Orioko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen 20 sektorearen –Aizperro– planeamenduari eta kudeaketari dagokion Hirigintzako hitzarmenaren testua eta Alkatetza-Lehendakaritzari ahalmen osoa ematea hitzarmena sinatzeko, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.
3. Behin behineko onarpena ematea, Orioko Udal Planteamenduaren Arau Subsidiarioen Berrazterketa eta Egokitzapen Txostenari, Orioko Udalak sustatu eta Iñaki Echeverria Izaguirre Arkitektoak eta José M^a Abad Urruzola Abokatuak idatzia.
4. Hasierako onespena ematea, egoki bada, Orioko Udal Planteamenduaren Arau Subsidiarioen 8. sektoreareari –Munto– dagokion ekimen pribatuko Plan Partzialari.
5. Onartzea, egoki bada, 2006. urterako Orioko Udalerriko jaiaren proposamena.
6. Eskariak eta galderak.

Alkateak hitza hartzen du eta adierazten du 2., 3. eta 4. puntuak aztergai zerrendatik kanpo geratzen direla, kontutan hartuz EA talde politikoak egindako proposamena zentzu horretan, denbora gehiago behar omen dute gaiak sakonki aztertzeko. Ondorioz, alkateak adierazten du 3 puntu horiek aztertuak eta bere kasuan onartuak izango direla datorren abuztuaren 30ean egingo den Udalbatzarraren ohiko bilkuran.



Esan-eginak

1. ONARTZEA, EGOKI BADA, 2005EKO EKAINAREN 28KO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

ONARTZEA, 2005eko ekainaren 28ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

5. ONARTZEA, EGOKI BADA, 2006. URTERAKO ORIOKO UDALERRIKO JAIAREN PROPOSAMENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

PROPOSATZEA Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Segurtasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde-Ordezkaritzari Orioko Udalerriaren herriko jaia, lanerako egun baliogabea, ordaindua eta ez errekuperatu beharrekoa, 2006. urterako ekainaren 29a izan dadila, San Pedro Eguna, hain zuzen ere.

Hori guztia, Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Segurtasun Sailak uztailaren 5eko 134/2005 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoa betez, zeinak Euskal Autonomia Erkidegoan 2005eko Lanegunetako Jaien Egutegi Ofiziala onartzen duen.



6. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez zen izan.

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA

IDAZKARIA